

Liburuaren asieran, Juan San Martinen saiaera edo entsaio bat dator, gaia euskerea dala, "Euskaldun zertarako?" itaunarekin asten da; eta Unamuno ta beste euskerearen kontrakoei erantzuna emon nahian, San Martinek sakon eta garbi jokutzen dau euskerearen alde.

Arrazoa dauka San Martinek, 30 gn. orrialdean zera esaten dauanean: "Oraindik zenbat lan egin beharra dogun ardi larruz jantzitako otsoen" kontra".

Orain ilabete batzuek dirala, eztabaida bat sortu zan ZERUKO ARGIA-n euskereari buruz. Batzuek esaten eben, euskerea galduta bere, gure erriak Euskalerrri izaten jarraituko ebal. Beste batzuek, ezetz. Eta San Martin, azken honeen alde agertzen jaku. Horretarako, arrazoi on bat emoten dau, nire ustez: "Hizkuntza ez da elkar adierazle bat bakarrik, baizik pentsatzeko tresna ere bai" (57 gn. orrialdean). Eta, jakina, euskerea galtzen badogu, eta euskerea pentsatzeko tresna ba bada, ezin pentsatu izango geunke euskaldun legez, eta euskal pentsakerea galdu egingo geunke.

Euskera batuaren alde, ta euskerea eskoletan sartzearen alde dator San Martin. "Lastima gure estudianteei beren asignaturetan ez erakustea. Ezagutu gabe, zelan maitatu? Ikasi gabe, zelan jakin?" (70 gn. orrialdean).

Saiaera eder hau, Arestiren itz batzuekin amaitzen da: "Bakeak euskerari kalte egingen bait dio", eta Azurmendiren poematik artutako itz honekin:

"Ba zijoan egun batez nire herria  
bizitzaren bidetik... Eta gizonak,  
elkar begiratuaz, esan zuten:  
*Ba dugu bake: jarri.*  
Inork ez zuen erantzun:  
hilda zegoen herria."

Saiaera honen jarraian, Xabier Kintanaren nobela bat dator, "Beste Izakia" tituluarekin.

Orain, zuentzat lan hau idazten nagoanean, gaueko amaiak dira. Telefonoa artuta, Kintanarekin itz egin dot, eta hara zegaitik.

"Beste Izakia" nobela honek, irudimenezko zientzia eta misterioa erabiltzen ditu, biak batean. Nire ustez, nobela ona da; baina Kintanak humilki esan deust, ez dagoala beragaz osorik konforme, eta beste lau obeagoak daukazala.

Nobelearen asieran, gizon bat ilten da, eriotzerik bildur-garrienarekin. Nobelearen amaieran, beste eriotze bat. Itzailea nor?

Ni ez noa hemen, nobelari buruz gehiago esatera. Irakurriko dozuenei kalte egingo neuskizue, misterioa aurretiaz argituz.

Baina, nobelea amaituta, itaun bat geratzen jaku erantzunik barik: Urليا\* (ez dot izena aipatu nahi) ilda gero, zer jazo zan super-erlauntzarekin\*?

Orain, gaueko amaietan, horixe galdetu deusat telefonoz Kintanari.

Kintanak, barreka:

—Liburuan, hori ilun geratzen da. Ez da horrerri buruz ezer esaten.

—Bai, ba dakit, erantzun deusat. Baina, nik legez, askok egingo dabe itaun berbera; eta zuk, nobela horren idazlea zurean ezker, berorren planteamentu osoa eukiko dozu urrean\*. Erantzun eidakuz, ba.

Bere erantzuna, haxe izan da:

—Nobela honetan erleekin jazoten dana, gure artean jazo leiteken gauzea da. Eta nobela honetan, Urليا ilda gero, erleak munduaren jabe izatera eldu ziran, edo izateko bidera behintzat.

Kintanaren nobelearekin liburuaren 254 gn. orrialdera eltzen gara, eta oraindino beste horrenbeste daukagu aurrean.

Salbador Garmendiaren "Historia Triste Bat" antzerki famadua dator urregio. Drama hau zer dan ez noa esatera, zuetariko askok antzerkian ikusita daukazue ta. Baina esan daigun, euskal teatroko Lehenengo Sari bat irabazi ebal, eta orain, astiro, zeuen etxeetan, irakurteko aukerea izango dozuela.

Gero, "Makina" tituludun iru egile gazteren teatro lantxu bat, atseginez irakurten dana; ta jarraian, Gabriel Arestiren "Beste mundukoak eta zoro bat". Arestiren lan honetan, San Nereo, deabruak eta neba-arreba batzuek agertzen dira. Euren artean zelangoa nahasteak sortzen diran jakiteko, irakurri egin behar dozue lan hau, eta zeuok erabagi benetako zoroa nor dan: ala zorotzat eukitakoa ala besteak.

Aurrerago, Bilboko Ekonomia-zako Fakultadean joan dan urtean egindako sariketan lehenengo geratu zan-Kintanaren ipuina, ta beste idazlan on batzuek.

Sariketa honeri buruz esan daigun, sari bi eskaini\* zira: bat euskerazko lanentzat, ta beste bat gazteleaz egindakozentzat. Mahaiburukoak, Gabriel Aresti, Angel Zelaieta (ANAITASUNA-ren zuzendari orain dana) eta neu ginan. Ogetalau lan geunkazan esku artean; eta euretariko dozena bat inguru, bata bestea baino obeagoak ziran. Azkenean, erabagi bat artu behar; eta Kintanarena iruditzen jakun onena, izkuntzearen aldetik eta gaiaren originaltasunagitik balio andikoa zalako.

"Euskal Elerti 69" liburu andi ta eder hau artu nahi badozue, eskatu zuzenbide honetara: Editorial Lur-Villa Zutik-Paseo Arbola-San Sebastián. Bere prezioa, suskrito-reentzat 100 peseta, ta besteentzat 200.